## AIZARNAZABALGO UDALA

*Iragarkia*

Aizarnazabalgo Udalaren Plenoak, 2009ko urriaren 29an burututako Udalbatzan, «Txabolak eta bordak eraikitzeko Udal ordenantza»-ri onespena eman zion.

Informazio publikoa igaro ondoren eta ez delarik aurkeztu inolako erreklamaziorik Ordenantzaren aurka, behin betiko izaerarekin onartua geratzen da, testo osoa argitaratuz.

Administrazio bidean erabaki honek behin betikoa izaera duenez, interesatuek Udal Plenoaren aurka erreposizio errekurtsoa tartekatu ahal izango dute hilabeteko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita, errekurtso kontentsio administratiboa jarri baino lehen.

Aizarnazabal, 2009ko abenduaren 22a.—Aizpea Manterola Salaberria, Alkatea. (9)

### TXABOLAK ETA BORDAK ERAIKITZEKO ORDENANTZA

*1. artikulua. Definizioa.*

1. Txabola behin-behineko eraikin txikia da, nekazaritzako lanetarako lagungarria, laborantzarako erremintak eta gailuak gordetzeko edota animalia txikiak babesteko –hegaztiak, kasu– balio duena. Gehienez ere hamazortzi metro koadroko azalera erabilgarria izan dezake txabolak.

Behin-behineko eraikina da, eta, erabiltzen ez den unetik aurrera, eraitsi edota jaso egin beharko da.

Erabili ezean, udalak, aldez aurretik jakinarazita, sorospidez eraitsi eta jaso ahal izango du.

2. Borda laguntzarako eraikina da, etxabereak eta haiekin zerikusia duten erremintak gordetzeko balio duena.

3. Nekazaritzarako edota abeltzaintzarako erabilera profesionalizatuak dituzten eraikinak –granjak edota abereentzako ukuiluak– handiagoak direnean, Udal Antolamendurako Arau Subsidiarioek ezarritakoa bete beharko dute.

*2. artikulua. Aplikazio eremua.*

Ordenantza honek txabolak eta bordak lurzoru urbanizaezinetan eraikitzeko moduak erregulatzen ditu. Eraikin horiek ezin dira baimendu lurzoru urbanizagarrietan edota herri lurzoruetan, ezta behin-behinekoak izanda ere.

*3. artikulua. Ezartzeko baldintzak.*

1 Bi eraikin mota horiek landaguneetako eraikin tradizionalen bolumetria sinpleari eutsi beharko diote; nola oinplanoan, hala altxaeran. Horrenbestez, oinplano angeluzuzena izango dute, eta teilatuak bi, hiru edota lau isuri izango ditu.

2. Bai txabolek, bai bordek, solairu bakarra izango dute. Ezingo dute inolaz ere ganbararik, tarteko solairurik edota antzekorik izan.

3. Txabolek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Lursailaren mugatik gutxienez hiru metrora egon beharko dute, bide publikotik bost metrora eta antzeko beste eraikinetatik zein errepideetatik 50 metrora.

## AYUNTAMIENTO DE AIZARNAZABAL

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el dia 29 de octubre de 2009, acordó la aprobación inicial de la «Ordenanza municipal reguladora de Construcción de chabolas y bordas».

Habiéndo transcurrido el plazo de información pública y no habiéndose presentado ninguna reclamación contra la misma, queda aprobada definitivamente y se publica el texto íntegro de la misma.

Contra éste acuerdo que es definitivo en la vía administrativa, los interesados, previa al recurso contencioso-administrativo podrán interponer recurso de reposición ante el Ayuntamiento Pleno en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio den el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Aizarnazabal, a 22 de diciembre de 2009.—La Alcaldesa, Aizpea Manterola Salaberria. (9)

### ORDENANZA DE CONSTRUCCION DE CHABOLAS Y BORDAS

*Artículo 1. Definición.*

1. Una Chabola es una pequeña construcción de carácter provisional, de ayuda a las tareas agrícolas, destinada a la guarda de herramientas e instrumentos de labranza, guarda de pequeños animales –aves, etc- con una superficie útil inferior a 18 metros cuadrados.

Se trata de una edificación con carácter provisional, y en el momento que no se utilice deberá de derribarse y recogerse.

En el caso del desuso, el Ayuntamiento, previa notificación, podrá ejecutar subsidiariamente la demolición y recogida de la chabola.

2. Una Borda es una construcción de ayuda destinada a guardar animales domésticos y los útiles relacionados con los mismos.

3. Aquellas construcciones de mayor entidad con destino a usos agropecuarios ya profesionalizados tales como granjas y cuadras de ganado serán reguladas por lo establecido al respecto en las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal.

*Artículo 2. Ambito de aplicación.*

La presente ordenanza regula la construcción de chabolas y bordas en parcelas clasificadas como Suelo No Urbanizable. No resultan autorizables este tipo de construcciones en Suelo Urbano o Urbanizable, ni con carácter provisional.

*Artículo 3. Condiciones de forma e implantación.*

1 Ambas tipologías de edificación, respetaran siempre la volumetría simple tanto en planta como en alzado, de las edificaciones tradicionales del ámbito rural, es decir planta rectangular y cubierta a dos, tres, o cuatro aguas.

2. Contaran como máximo en cualquiera de los casos de una única planta. En ningún caso se autorizarán altillos, entreplantas, etc.

3. Las Chabolas, deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) Estar situadas al menos a tres metros del límite de la parcela, a cinco metros de camino público, y a cincuenta metros de otras construcciones similares o carreteras.

b) Teilatu-hegalak, gehienez ere, 2,20 metro izan beharko ditu.

c) Oinplanoan gehienez ere hamazortzi metro koadro egongo dira eraikita. Gehienez ere bost metro koadroko arkupea izango du.

d) Oinplanoak karratua edota angeluzuzena izan beharko du, eta teilatuak bi edota lau isuri (gehienez ere % 35eko maldarekin).

e) Teilatuaren materiala: Zeramikazko teila gorri tradizionala.

f) Fatxadek harlangaitz-hormaz eginak beharko dute izan, bistako harriekin; bestela, berriz, kanpoaldea modu tradizionalean zurituta ere egon daiteke. Bi moduak ere konbina litezke. Tartean behin egurra ere erabil liteke. Baoek (leihoak eta abar ipintzeko) neurri jakinak izango dituzte, eta proportzio bertikalak.

g) Kanpoko arotzeria: Egur koloreari eusten dion berniza edota estilo tradizionalean, tonu ilunetan, margotuta.

h) Eraikinaren inguruan bost zuhaitz landatu beharko dira; haritzak, pagoak, lizarrak edota arteak.

4. Bordek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Lursailaren mugatik gutxienez hamar metrora egon beharko dute, bide publikotik ere hamar metrora eta antzeko beste eraikinetatik zein errepideetatik 50 metrora.

b) Teilatu-hegalaren gehieneko garaiera, hiru metro lursailaren edozer puntutatik.

c) Oinplanoan gehienez eraikitako azalera kasuz kasu aztertuta ezarriko da, barruan izango den abere kopuruaren arabera. Nolanahi ere, gehienez 200 metro koadro izango ditu. Behar bezala justifikatuz gero (abereak edota instalazioak izango dituela) gehieneko muga hori %15 ere handitu ahal izango da.

d) Oinplanoak karratua edota angeluzuzena izan beharko du, eta teilatuak bi edota lau isuri (gehienez ere %35eko maldarekin).

e) Teilatuaren materiala: Zeramikazko teila gorri tradizionala.

f) Fatxadek harlangaitz-hormaz eginak beharko dute izan, bistako harriekin; bestela, berriz, kanpoaldea modu tradizionalean zurituta ere egon daiteke. Bi moduak ere konbina litezke. Tartean behin egurra ere erabil liteke. Baoek (leihoak eta abar ipintzeko) neurri jakinak izango dituzte, eta proportzio bertikalak. Nekazaritzako ibilgailuak sartzeko baoak eraikinarekin uztartu egin beharko dira, ahal den neurrian behintzat; horretarako, egurra, bistako egurrezko ateburuak eta antzekoak erabili beharko dira.

g) Kanpoko arotzeria: Egur koloreari eusten dion berniza edota estilo tradizionalean, tonu ilunetan, margotuta.

h) Eraikinaren inguruan hamar zuhaitz landatu beharko dira; haritzak, pagoak, lizarrak edota arteak.

i) Borda bat eraikitzeko, gutxienez 12.000 metro koadroko lursaila izan beharko da, eta jabeak Nekazaritzako Erregistroan izena emanda egon beharko du, eta gutxienez Nekazaritzako Lan Unitate (UTA) bat beharko du izan.

j) Borda barruan ezingo da inolaz ere sukalderik, bainugelarik, keak ateratzeko biderik edota antzekorik ipini. Gehienez ere komuna ipini ahal izango da; hau da, komuna bera eta konketa edota aska. Komuna ipiniz gero, bordak putzu septikoa ere izango du.

k) Kanpoaldean zoladura eduki ahal izango du; bordaren oinplanoak okupatzen duen lurzoruaren bikoitza, gehienez.

b) Altura máxima de alero, 2,20 metros.

c) Superficie máxima construida en planta, 18 metros cuadrados. Podrá disponer de un porche de hasta 5 metros cuadrados.

d) Planta cuadrada o rectangular, cubierta a dos o cuatro aguas y una pendiente máxima del 35%.

e) Material de cubierta: Teja cerámica roja tradicional.

f) Material de fachadas, mampostería con piedra caravista o revoque tradicional blanco al exterior, pudiendo combinarse. Se autoriza también el uso parcial de madera. Los huecos deberán respetar dimensiones y proporciones verticales.

g) Carpinteria exterior: Madera barnizada en su propio color o al estilo tradicional pintada en tonos oscuros

h) Alrededor de la construcción deberán de plantarse cinco arboles, fresnos, robles, hayas o encinas.

4. Las Bordas, deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) Estar situadas al menos a diez metros del limite de la parcela, a diez metros de camino publico, y a cincuenta metros de otras construcciones similares o carreteras.

b) Altura máxima de alero, tres metros desde cualquier punto del terreno.

c) La superficie máxima construida en planta, se establecer en cada caso según las necesidades de los animales a albergar en su interior, con un máximo de 200 metros cuadrados. De manera justificada (ubicación del ganado o instalaciones) se autoriza un margen del 15% adicional.

d) Planta cuadrada o rectangular, cubierta a dos o cuatro aguas y una pendiente máxima del 35%.

e) Material de cubierta: Teja cerámica roja tradicional.

f) Material de fachadas, mampostería con piedra caravista o revoque tradicional blanco al exterior, pudiendo combinarse. Se autoriza el uso parcial de madera. Los huecos deberán respetar dimensiones y proporciones verticales. El hueco para acceso de vehículos agrícolas deberá de integrarse en la medida en que sea posible mediante el uso de materiales como madera, dinteles de madera vistos, etc.

g) Carpinteria exterior: Madera barnizada en su propio color o al estilo tradicional pintada en tonos oscuros.

h) Alrededor de la construcción deberán de plantarse diez arboles, fresnos, robles, hayas o encinas.

i) La parcela edificar una borda deberá de aportarse una parcela minima de 12.000 metros cuadrados y el titular deberá de estar inscrito en el Registro de Agraria, teniendo al menos una UTA.

j) En el interior de la borda no se autorizara en ningún caso la implantación de elementos tales como cocinas, baños, salidas de humos, etc Podrá disponer de un aseo, constituido por inodoro y lavabo o aska, en cuyo caso dispondrá de fosa séptica.

k) Podrá disponer de superficie pavimentada exterior del doble de la superficie ocupada en planta.

l) Eraikin hauetarako lursailaren ezaugarri topografikoak oso kontuan hartuko dira; ezingo da lur-erauzketa handirik egin bordak eraikitzeko, eta, eginez gero, sortutako inpaktu bisuala zuzentzeko hartu beharreko neurriak hartuko dira.

m) Eraikin hauetara sartzeko bidea lehendik dagoen bide publikotik edo pribatutik izango da, eta bordaren kokapenagatik gehienez ere 60 metroko luzapena egin ahal izango zaio bideari.

*4. artikulua. Erabiltzeko baldintzak.*

Txabolak eta bordak nekazaritzako ustialekuei laguntzeko bakarrik erabiliko dira, baita landaguneetako lurzoruak profesionalizatu gabe erabiltzeko ere (baratzeak, abere xeheak, eta abar). Ezin izango dira inolaz ere etxebizitza gisa erabili.

Ezin izango dira eraikin hauek beste gauza batzuetarako erabiltzen hasi.

Ustialekuei laguntzeko eraikin hauek eginez gero, lursailean lehendik antzeko erabileretarako zeuden eraikin zaharrak eraitsi edota desagerrarazi egin beharko dira.

l) La implantación de estas construcciones será estudiada en función de las características topográficas de la parcela, no debiendo producir grandes desmontes y en todo caso justificando las medidas correctoras de impacto visual que pueden generar.

m) El acceso a estas construcciones deberá realizarse desde camino público o privado ya existente, pudiendo autorizarse por motivos de implantación la ejecución de nuevos caminos en una longitud máxima de 60 metros.

*Artículo 4. Condiciones de uso.*

El uso de estas construcciones, Chabolas y Bordas será exclusivamente de apoyo a explotaciones agrarias o a usos no profesionalizados del suelo rural (huertas, ganado menor, etc). Resulta expresamente prohibido el uso de vivienda.

No se autoriza ningún cambio de uso posible sobre este tipo de edificaciones.

La implantación de este tipo de edificaciones de apoyo a explotaciones conllevará la desaparición y demolición obligatoria de aquellos elementos preexistentes en la parcela con uso similar.